

Ebazpena: R037/2023

Espedientea: 5/2017

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita CIESASA zergapekoak 2013an eta 2014an egindako lan pertsonalagatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 5/2017 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- ZAEAk ikuskapen-jarduketak egin zituen, CIESAk 2011. eta 2012. urteetan JRG jaunari egindako lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumenari loturik.

Jarduketetan zehar, akta bat abiarazi zuen, zeinaren arabera Estatuari ordaindu behar baitzitzaion langileak lurralde erkidean eta atzerrian zerbitzuak eman zituen egunei zegozkien atxikipenen proportzioa.

Jarduketa horri dagokionez, BFAk 11/2016 espediente-zenbakiarekin izapidetzen den gatazka planteatu zuen.

2.- Aurreko erregularizazioaren ondorioak beste ekitaldi eta langile batzuetara zabaldu nahian, ZAEAk ikuskapen-prozedura bat abiarazi zuen 2016ko azaroaren 11n, CIESAk 2013an eta 2014an lan pertsonalagatik egindako atxikipenei loturik.

Prozedura horretan, atxikitzaileri eskatzen zitzaion identifika zitzala EAEn 2013an eta 2014an zerbitzuak eman ez zituzten langileak.

3.- 2017ko urtarrilaren 13an, BFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, aipatutako ikuskapen-prozedurari zegokionez.

4.- ZAEAk uko egin zion errekerimenduari, eta zehaztu zuen eskumena duela bai atxikipen-lantokiaren presuntzioa suntsitzeko, bai langileek lurralde erkidean eta atzerrian lan egin duten egunei dagozkien atxikipenen zatia erreklamatzeko.

5.- 2017ko otsailaren 20an, BFAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean. 5/2017 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Ikuskatzeko eskumena

ZAEAk ikuskatzeko eskumena du, ordainaraztea dagokion lan pertsonalagatiko atxikipenekin loturik.

Arbitraje Batzorde honek hainbat ebazpenetan erabaki du atzerrian egindako lanei dagozkien atxikipenak ez dagozkiola Estatuari, baizik eta langilea zer lantokiri atxikita dagoen, bada toki horri dagokion Administrazioari.

Arbitraje Batzorde honek eman du, orobat, *lantokiari* eman beharreko edukiari buruzko iritzia ere.

Azkenik, Arbitraje Batzorde honek 39/2015 eta 11/2016 gatazketan adierazi du Ekonomia Itunaren espirtuaren aurkakoa dela lan pertsonalagatiko atxikipenak hainbat administrazioen artean banatzea —alegia, foru-lurraldean eta lurralde erkidean lan egindako egunen kopuruaren proportzioan banatzea—.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Adieraztea ZAEAk ezin dituela erregularizatu lan pertsonalagatiko atxikipenak langileek foru-lurraldean eta lurralde erkidean lan egin duten egunen proportzioan; beraz, ikuskapen-prozeduraren helburua ez zenez Estatuari dagozkion atxikipenengatiko ordainarazpenak erregularizatzea, beharrezko diren gaikuntza-eskumenik gabe gauzatu da.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CIESAri jakinaraztea.